



Debako IUPI

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

Parte-hartze memoria

Debako IUPI

Irigarritasun Unibertsalerako Plan Integrala 2026-2029

Parte-hartzearen memoria

Data
2025eko Iraila



DEBAKO UDALA

Sustatzailea
Debako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde
Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren**
%85eko dirulaguntza jaso du



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes



Irigarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

- I. IUPI: Memoria.
- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udalerrri irisgarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irisgarria.
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.**



Aurkibidea

- Kronograma orokorra.....4**
- Koordinazio taldea..... 5**
 - Abiapuntua.....5
 - Koordinazio taldearen bilera (1).....6
 - Koordinazio taldearen bilera (2)..... 8
 - Koordinazio taldearen bilera (Itziar).....10
- Teknikariekin elkarrizketak..... 12**
- Herritarren parte-hartze saioak.....17**
 - Herritarren parte-hartze saioa - Deba.....17
 - Herritarren parte-hartze saioa - Itziar..... 19

Kronograma orokorra

	Koordinazio Mahaia	Udal-teknikariak	Herritarrak
Abiapuntua	2025/03/20		
KT1-Koordinazio Mahaia	2025/04/15		
TK1-Teknikariekkin elkarriketak		2025/04/15	
KT2-Koordinazio Mahaia	2025/05/20		
KT3-Koordinazio Mahaia	2025/06/03		
H1-Herritarren parte-hartze saioa			2025/06/18
H2-Herritarren parte-hartze saioa			2025/06/19

Koordinazio taldea

A	Abiapuntua
Helburua	—Debako IUPIaren berri ematea. —Proposatutako prozesua analizatzea eta lehen pausoak zehaztea.
Jarduera mota	Bilera.
Noiz	2025/03/20
Non	Udaletxea.
Iraupena	60 minutu.
Partaideak	—Udal-ordezkar­i politikoak: —Jon Riaño, zinegotzia.. —Udaleko teknikari eta langileak: —Iraitz Udabe, arkitekto teknikoa. —Aholkularitza: —Miren Vives, Projekta Urbes.
Erabilitako dokumentuak	—DEBA-IUPI-Aurkezp­ena 1 —Elkarrik­etarako gida
Landutako gaiak	—Proiektuaren aurrekariak azaldu dira, IUPIak aurreko Irisgarritasun Planekiko dituen desberdintasunak azalduz. —IUPI-ak Debako Udala lantzen ari den Zaintza Ekosistemarekin duen lotura ikusita, hau kontuan hartuko da herritarrekin egingo diren parte-hartze deialdiak egiteko orduan.
Hartutako erabakiak	—Parte-hartuko duten teknikariak identifikatuko dira eta elkarrik­etak antolatu. —Koordinazio Taldearen lehen bilera antolatuko da (KT1). —Aurkezp­ena eta teknikarien elkarrik­etetarako laburpena partekatuko dira.

KT1 Koordinazio taldearen bilera (1)

Helburua —Debako IUPIaren berri ematea.
—Proposatutako prozesua analizatzea eta hurrengo pausoak zehaztea.

Jarduera mota Bilera.

Noiz 2025/04/15

Non Udaletxea.

Iraupena 120 minutu.

Partaideak —Udal-ordezkarik politikoak:
—Jon Riaño, zinegotzia..
—Arantza Egaña, Itziarko Auzo Alkatea.
—Udaleko teknikari eta langileak:
—Iraitz Udabe, arkitekto teknikoa.
—Hodei Arregi, arkitekto teknikoa.
—Olatz Otaegi, udal arkitektoa.
—Amaia Zinkunegi, euskara teknikaria.
—Idoia Alvarez, ingurumen teknikaria.
—Idurre Arruti, hirigintza saileko administraria.
—Henar Cebrian, komunikazio arduraduna.
—Aholkularitza:
—Miren Vives, Projekta Urbes.

Erabilitako dokumentuak —[DEBA-IUPI-Aurkezpena KT1](#)
—[labur.eus/IUPI-DEBA-MAPA](#)

Landutako gaiak —Proiektuaren aurrekariak azaldu dira, IUPIak aurreko Irisgarritasun Planetikiko dituen desberdintasunak azalduz.
—Ondoren, datozen urteetan garatzea espero diren esku-hartzeak jaso dira.

DEBA

Espazio publikoak

—Gudarien Plaza eta paseo estalia. Biak elkartzen dituen zebrabideak ere jasoko ditu proiektuak.
—Arakistain plazan ibilbide leunak ahalbidetzea, adokinak kendu eta harlauzak jarritz (jarduketa hau aurrekontu parte-hartzaileetan jaso da).
—Kioskoko komunak: sarbidea ahalbidetuko duen arrapala eta komunen egokitzeapena.
—Mugikortasun Plana egitea, oinezkoen ibilbideak erraztu ahal izateko trafikoan egin daitezkeen aldaketak aztertuz: herrigunea eta hondartzaren arteko lotura hobetzea, adibidez.
—Eskola Bideei dagokionez, autobusak arrisku uneak sortzen ditu ikastetxera sarreran. Araudiaren arabera, bertaraino hurbildu behar ditu ikasleak.
—Mogel kalea eta ikastetxearen artean azken igogailua faltako litzateke.
—Edukiontzia ez dira irisgarriak. Kokapenaz gain ontzia bera ere aztertu beharko

Hartutako erabakiak

litzateke. Mankomunitatearen eskumena da.

Eraikinak

- Udaletxea ez da irigarria bere osotasunean. Behe solairuko komunak langileentzat soilik dira eta ez daude egokituta. Harrera-gunean eta diru-bilketan faltan botatzen dute pribatutasuna ahalbidetuko lukeen bilera-gela edo bulego bat. Goiko solairuak, pleno aretoa batipat, ez dira irigarriak.
- Arte Eskolak badu igogailua, baina bertara iristeko ibilbidea ez dago egokituta.
- Gazteak oso egoera kaskarrean dago, ez soilik irigarritasunari dagokionez.

Komunikazioa

- Seinaleztapenean gabeziak daude.
- Udalak whatsapp-kanal bat jarri du abian.
- Sare sozialetan informazioa partekatzeko bideoa erabiltzen hasi dira.

ITZIAR

Espazio publikoak

- Oro har, irigarritasunari dagokionez herrigunearen egoera kaskarra da.
- Ondareak babestutako esparrua da, hein handi batean.
- Ibilgailuak zenbait puntutan ez uzteko trabagarriak (bolardoak) jartzen ari dira.

Eraikinak

- Auzoko udaletxea Burugorri eraikinean kokatuta dago. Ez du igogailurik, baina goiko solairuko komuna eraberritzean egokitu egin zen.
- Anbulategia bera irigarria den arren, bertara ibilbidea ez: malda handia duen kale batean dago.
- Eskola berria irigarria da (LH) baina zaharra ez. Bertan Haur Hezkuntza ematen da.

AUZOAK

- Lasturrek badu hiri-izaera, baina gainontzeko auzoak ez.
- Itsaspe eta Elorriaga aztertzeak merezi du, bestalde.

- Hurrengo bilera **maiatzak 20an** egitea, aipatu diren jarduketa proposamenak aztertze eta herritarren saioak prestatzeko (Deban eta Itziarren).
- Aldez aurretik jarduketa zerrenda proposamena bidaliko da, partaideek ekarpenak presta ditzaten.

KT2 Koordinazio taldearen bilera (2)

Helburua —Aldez aurretik bidali den proposamen taulari ekarpenak egitea.
—Herritarren parte-hartze saioa antolatzea.

Jarduera mota Bilera.

Noiz 2025/05/20

Non Udaletxea.

Iraupena 150 minutu.

Partaideak —Udal-ordezkarari politikoak:
—Alazne Txurruka, alkatea.
—Jon Riaño, zinegotzia.
—Arantza Egaña, Itziarko Auzo Alkatea. (ez du etortzerik izan)
—Udaleko teknikari eta langileak:
—Iraitz Udabe, arkitekto teknikoa.
—Olatz Otaegi, udal arkitektoa.
—Idoia Alvarez, ingurumen teknikaria.
—Henar Cebrian, komunikazio arduraduna.
—Aholkularitza:
—Miren Vives, Projekta Urbes.

Erabilitako dokumentuak —labur.eus/DEBA-IUPI-Aurkezpena_KT2
—labur.eus/DEBA-IUPI-PROP1
—labur.eus/IUPI-DEBA-MAPA

Landutako gaiak **DEBA**
Ibilbide eta espazio publikoak
—Arakistain plaza: adokinak plaza osoan kendu ala ibilbideetan soilik. Zalantza, aurrekontuagatik batipat, baina baina ondare gisa uler daitezkelako.
—Zumardia eta hondartzaren arteko oinezko lotura. Ibilgailuen eta oinezkoen arteko espazio banaketari buruz hausnarketa. Oinezkoek dituzten zailtasunetaz jabetu: ibilbide jarrairik eta segururik ez.
—Hondartzaren ekialdeko muturrean antzeko zerbait gertatzen da: ibilbidea aparkaleku batetatik pasatzen da. Irisgarria da (ez dago koskarik) baina ez da segurua.
—Hondartza kalean, Gudarien plazatik aurrera, oinezko ibilbidea bitan banatzen da. Arrapala du hasieran eta bi maila bukaeran. Bi ibilbideak estuegiak dira.
—Paseo estaliaren parean autobus gurelekuak egongo dira. Ibilbide irisgarria paseo estalitik igarotzen da, eta horrek honen erabilera baldintzatzen du. Semaforoak daudenez, utzi al daiteke errai bakarra errepidean eta txandakako pasabidea ahalbidetu?
—Itsasbegiko irisgarritasun baldintzak eskasak dira. Igogailutik portaletara ibilbide zailak daude.
—Antzerako arazoak daude Agirretxe, Josepe eta Itziar bideetan ere.

- Mogel-Luzaro igogailuak azken koska gainditzea ahalbidetuko luke. Baina beste bat geratuko litzateke oraindik: Luzaro ikastetxetik Mendata Institutura. Agian, azken igogailu hori eraikinetan jar daiteke. Hezkuntza sailaren bitartez? Eskola komunitatearekin hausnartu.

Eraikinak

- Udaletxea: behe-solairuaren berrantolaketa. Herritarren eta langileen ateak eta esparruak banandu. Arkhiru-k neurriak hartuta dauzka, diru-laguntzaren bat lortutakoan proiektua garatzeko.
- Gaztelekua: oso egoera kaskarrean dago, baina diru inbertsio handia behar da konpontzeko.
- Euskal Jolas pilotalekua: aurrekontu parte-hartzaileetan jaso da. Ez dakigu onespenik izango duen.
- Gizarte zerbitzuetarako eskatu den itxaron-gela: posible da egitea, podologoak eta ile-apaindegikoak ere eskatu bait dute.

Garraioa

- ETS-rekin trenbide gaineko pasabideari buruz akordio batera iristea zaila izango da. Proposatu duten aukerak (3 igogailu) ez dio erantzun onik ematen oinezko ibilbideei eta herritarren beharrei.

AUZOAK

—Lastur:

- Foru Aldundiko errepide sailak ez du zebrabiderik jartzea baimentzen. Aldiz, abiadura jeisten lagunduko duten errepide markak jartzea proposatu du.
- Aparkalekua egokitzea (proposatu den bezala) urbanizazio-karga gisa jasota omen dago.

- Elorriaga** auzorako ez da jarduketa zehatzik proposatu.

Hartutako erabakiak

- Herritarren parte-hartze saioa **ekainak 18an** egitea erabaki da, arratsaldeko 18:30etan, Ispilu gelan.
- Herritarren parte-hartze saioan aurkeztuko den proposamenen taula eguneratua bidaliko da,
- Itziarko auzo-alkateak etortzerik izan ez duenez, beste bilera bat egitea proposatu da (online izan daiteke), bertako jarduketa-proposamenak azatertzeko.
- Itziarren beste saio bat egin behako da eta horretarako data zehazteke dago.

KT3 Koordinazio taldearen bilera (Itziar)

Helburua — Aldez aurretik bidali den proposamen taulari ekarpenak egitea.
— Herritarren parte-hartze saioa antolatzea.

Jarduera mota Bilerak.

Noiz 2025/06/03

Non Online / telefonoz.

Iraupena 90 minutu.

Partaideak — Udal-ordezkarik politikoak:
— Arantza Egaña, Itziarko Auzo Alkatea.
— Aholkularitza:
— Miren Vives, Projekta Urbes.

Erabilitako dokumentuak — labur.eus/DEBA-IUPI-Aurkezpena_KT2
— labur.eus/DEBA-IUPI-PROP1
— labur.eus/IUPI-DEBA-MAPA

Landutako gaiak **ITZIAR**

Ibilbide eta espazio publikoak

- Galtzada kalea: adokinak babestuta daude, baina espaloiak ken daitezke, zoladura maila berean jarri eta irigarritasuna hobetuz. Portaletan sartzea ahalbidetu. Aparkatzea debekatuta dago, baina bi plaza jarriko dira adineko bizilagunentzat. Lorontziak jartzea ondo iruditzen zaio, baina isunak jartzea eraginkorra izan dela deritzo.
- Ibilbide zirkularra lortzea oso garrantzitsua da. Mutxiarteko etxebizitzak egiten direnean posible izango da. Hala ere, eremu publiko eta pribatuetatik pasatzen da eta horrek zailtasunak dakarzi.
- Mutxiarte-Goikokale-ko autobus gurekua: markesina auzolanean egin zen eta ondo deritzo ordezkatzeari. Leku garrantzitsua da hau: segurtasunaz eta irigarritasunaz gain erosotasuna ere lantzea aipatu da.
- Industrialdeko ibilbideak: gauzatze proiektua idatzita dago. Diru-laguntzak lortzeko zailtasunak daude, industrialdea ez baita publikoa: ez da jaso, pribatua da. Gainera, Aldundiak zailtasunak jartzen ditu zebrabideak jartzeko.
- Prozesio kalea da gaur egun Alondegi eta Galtzada arteko eskaileren alternatiba irigarria. Beraz, IUPIan jasoko da kalearen egokitzeapena (maldan eskubandak jartzea eta zoladurak ordezkatzea, batipat).
- Gaitentzeko ekarpenak taulan jaso dira.

Eraikinak

- Udaletxea: Burugorri irigarri bilakatzea oso zaila da, eraikina txikia izanik, igogailu bat jartzeak azalera asko kenduko lioke. Bestalde, gaur egun apaizetxea 20 urtetarako alokatuta dutenez, udalbatzak bertan egiten dituzte. Eraikin hau egokitzea errazagoa eta eraginkorragoa izango da, etorkizunean Udaletxeaz gain, kultur etxea ere izan

daitekelako.

- Zabalsoro pilotalekua: 2025eko udaran komunak eraberrituko dira. Ikastetxeko heziketa fisikoa pilotalekuan egiten da eta haurrentzat aldagela eta dutxak behar dituzte. Horretarako, komun-multzoetako bat eraberrituko da. Beste multzoari dagokionez, eraberritzea proposatuko da, gaur egun konketa bat, kabina bat eta lau pixatokiz osatuta bait dago.

Garraioa

- Autobus geralekuetarako ereduak prestatuko dira IUPIaren baitan.

AUZOAK

—Lastur:

- Trafikoa baretzeko neurriak eskatu zaizkio Aldundiari.
- Gaur egun dagoen aparkalekua plazaren osagarri izatea aurreikusten da, aparkaleku berria errepidearen beste aldean dagoen zelaian jarriz. Bertan, merenderoaren handitzea eta agian, karabanentzako leku bat jartzea ere pentsatu izan da.
- Zubian egin ziren irisgarritasun egokitzapenak.
- Aterpetxeaa egokituta dago eta Interpretazio Zentrura sarbide egokitua bertatik egin daiteke, kanpotik koskak baitaude. Hau seinaleztatzea proposatu da.
- Elorriaga** auzorako ez da jarduketa zehatzik proposatu. Esparru publiko handi bat Aldundiarena da. Oinezkoen ibilbideek (Santiago Bidea) trafikoarekin duten harremana ez da ona: agian mendiz-mendiko ibilbide alternatiboa ezarri beharko litzateke oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

Hartutako erabakiak

- Herritarren parte-hartze saioa **ekainak 11an edo 18an** egitea erabaki da, arratsaldeko 16:00 edo 16:30etan, Burugorriin.
- Herritarren parte-hartze saioan aurkeztuko den proposamenen taula eguneratua bidaliko da,
- Aipatu diren proiektuak bidaliko dizkigute.

Teknikariekin elkarrizketak

T1	Garbiñe Agirregomezkorta - Administrazio orokorreko teknikaria
Noiz	2025/04/15
Non	Udaletxean
Iraupena	30 minutu.
Landutako gaiak	—Lizitazioak: enpresa handiek ez dute zailtasunik, ohituta daude hizkuntza eta izapideetara. Baina enpresa txikiak (Burugorri ostatua, Ondargain taberna, hondartzako izozki etxolak) zailtasunak dituzte eta erraztasunak ematen zaizkie. —Administrazioko hizkuntza oztopo handia da, prozesuak zurrunik eta hiztuntza ez-ulerkorra. Hala ere, eman dira urratsak. Adibidez, administrazioan euskaraz sortzen diren dokumentuak hizkuntza ulergarrian egiten saiatzen dira: gaztelerazko dokumentuak itzuli beharrean hutsetik sortzen dituzte orain. Aldiz, Ogasuneko dokumentazioa oraindik ez da joera honetara egokitu. —Hizkuntza oztopo hauek ezabatzea are garrantzitsuagoa da udal txikietan, hurbiltasuna mantentzea garrantzitsua eta beharrezkoa baita. —Adibidez, Debako hilerri zaharra itxi zenean gutun bitartez azaldu zitzairen herritarrei eta, horretaz gain, banan-banan elkartzeko aukera ere eman zitzairen. —Udal txikien arazo handiena baliabide gutxiagorekin udal handien betebeharrak guztiak dituztela da. —Formakuntza ezinbestekoa dela deritzo. Esku-hartze proposamenak Deba —Udaletxea: Gabeziak ikusten ditu sarreran eta arreta-gunean. Pandemia garaian herritarrak artatzeko mahai bat jarri zen beheko solairuan, eskailera ondoan. Oraindik ere mantentzen dute: teknikariak behera jaisten dira bilerak egitera. Hala ere ez dago pribatutasunik. —Aurrekontu parte-hartzaileetan Zumardiko zoladura leuntzea eskatu da. Itziar —Itziarren 10 urte daramatza instituzio bilakatzen. Batzar irekiak egin ohi dira, funtzionatzeko modua erabat partehartzailea da. —Udaletxea ez da irisgarria. —Urtean bide bat konpontzeko ohitura hartu dute. Iaz lehentasunak ezartzen zituen hurrenkera bat adostu zen.

T2 Ainhoa Urkidi - Idazkaritzako eta alkatetzako administraria

Noiz 2025/04/15

Non Udaletxean

Iraupena 30 minutu.

Landutako gaiak

- Webgunea egokitzea ezinbestekoa dela uste du: izapide asko elektronikoki egiten dira eta funtsezkoa da informazioa, zerbitzuak eta eskaerak modu eraginkor eta errazean egin ahal izatea.
- Webgunearen ardura turismo sailak zuen hasieran. Gero komunikazio enpresak hartu zuen.
- “Esan Udalari” zerbitzua iradokizun buzoi gisa sortu zen baina eskaerak egiteko ere erabiltzen da (lokalak eskatu, adibidez).
- Udaltzaingoa lekuz aldatuko da. Horrek udaletxeko berrantolaketa ahalbidetu dezake.
- Udaletxean gabeziak ikusten ditu harreran, ez baitago itxaroteko nahikoa leku, ez eta pribatutasuna ahalbidetuko duen espaziorik. Pleno aretoa ez da irigarria, ez eta bilera gelak ere.

T3 Maite Aguado - Kultura, kirol eta gazteria teknikaria

Noiz 2025/04/15

Non Udaletxean

Iraupena 30 minutu.

Landutako gaiak

- Udaletxea: pleno aretoak erabilera anitzak ditu: erakusketak, sari banaketak... Irigarria ez izateak zailtasun handiak sorrazten ditu.
- Festei dagokienez, zezenketarako jartzen den egiturak ez du irigarritasuna bermatzen, ez du esparru egokiturik. Horren ordez erabili ohi dira udaletxeko balkoiak, eta hauek ere ez dira irigarriak.
- Ez dago kultur etxerik: Agirre Jauregian Musika Eskola dago eta bertako “Ispilu gela” irigarria da. Erakusketa gela bezala erabili izan da, baina hezetasun arazoak dituenek, ez da egokia zenbait material jartzeko.
- Kontzertu asko elizan egiten dira. Ez da irigarria, baina koskak gaintitzeko egurrezko arrapalak eraiki dituzte.
- Antzerkia kalean edo pilotalekuan egin ohi da.
- Pilotalekuko harmailetan heldulekuak falta dira zenbain eskaileratan.
- Euskal Jolas pilotalekuko sarbideak gehiegizko malda du. Ez da gehiegi erabiltzen (idi probetarako).
- Turismo bulegoko atea ez da irekitzen erraza eta deitzeko sistema falta du.
- Kultur Elkartea pribatua da. Aretorako arrapala du eta liburutegira iristeko eskailera

- estuegia du. 94 pertsonarentzat lekua dago, eserleku finkoekin. Ez dago egokitutako plazarik.
- Gaztelekua: irisgarritasunaz gain bestelako gabezia asko ditu. Zoladura irristakorra da, aireztapena eskasa, hezetasun handia dago.
 - Deban ez dago ludotekarik: gabezia handia dela deritzo. Haurrentzat eta familientzat baliabide gutxi daude. Pilotalekua, estalita dagoenez, interesgarria da, baina ohiko jarduera asko egiten dira bertan. Ez dago guztientzat tarterik.
 - Liburutegian espazioekin eta ordutegiekin arazoak daude: haur txikientzat (0-2) tarterik ez eta handiagoentzat tarte laburrak.
 - Komunikazioari dagokionez, webgunea, instagram kontua eta whatsapp taldea daude, ohiko karteletaz gain.
 - Ondo deritzo festetako programazioan su-festak egongo direla adierazteari.

T4 Oihana Garate - Gizarte Zerbitzuetako langilea

Noiz 2025/04/15

Non Udaletxean

Iraupena 30 minutu.

- Landutako gaiak**
- Gizarte Zerbitzuetako bulegoak Eguneko Zentroko eraikinean daude. Herritarrentzat ez daude presente, hurbil: gizarte zerbitzuekiko ikuspegia hobetzeko ikusgaitasuna hobetzea gomendagarria dela deritzo. Seinaleztapena hobetu.
 - Hobekuntza posibleak: Zerbitzuak behe solairuan harrera gune bat edukitzea (ez dago lekurik) eta bulegoetako intimitatea areagotzea.
 - Komunikazioari buruz, udaletxeko harreraren dauden eskuorriak hobeto antolatu beharko liratekela adierazi du: baliabideak ikusgai jartzeko modu eraginkorrakoak bilatu behar dira.
 - Herritarrei izapideetan laguntzea oso ohikoa da: prozesuak ez dira ulerterrazak eta pauso bakoitzean laguntzen diete.
 - Dualia zerbitzua erabili ohi dute itzulpenetarako. Itzulpen-zerbitzua ematen duena erabiltzailearen ezaguna izatea suertatu izan da: hori arazo bat da pribatutasuna mantentzeko orduan. Beste kasu batzutan beraien artean hitz egiten dute eta ez zaio langileari osoki itzultzen.
 - Formakuntzak beharrezkoak eta gomendagarriak. Zailtasun kognitiboak dituzten pertsonak, atzeritartasun egoeran daudenak eta adin-txikikoak artatzeko, adibidez.

T5 Aitor Leiaristi - Diru bilketako administraria	
Noiz	2025/04/15
Non	Udaletxean
Iraupena	30 minutu.
Landutako gaiak	—Udaletxeak gabezia handiak ditu: atea barrualdera irekitzen da, gurpildun aulkiak biratzeko azalerak oso justuak dira... —Ez dago pribatutasunik: bi pertsona daude diru-bilketan eta ez dago intimitaterako aukerarik. —Bi administrari daude zerbitzu hau ematen: berak ordutegi zabalagoa du, baina lankidearena ez da herritarrei behar besteko zerbitzua emateko nahikoa. —Bilera-gela eta komunen arteko harremana zaila da. —Administrazioaren hizkuntza oztopo handia da, baina herritarrei ulertaraztea beraien lanaren parte dela deritzo. Enpatia ezinbestekoa da. Gai honi buruzko formakuntza interesgarria dela adierazi du. —Ez dute Dualia zerbitzua ezagutzen. —Webgunea hobetu beharko litzateke: zerbitzu-karta osoa eta erabilterraza herritarren eskura jarri.

T6 Amaia Ayastui - Kontuhartzailetza teknikaria	
Noiz	2025/04/15
Non	Udaletxean
Iraupena	30 minutu.
Landutako gaiak	—Zergak eta katastro gaiak eramaten ditu. —Katastro gaiak, batez ere bertatik bertara artatzen ditu, hurbiltasunez: harreman zuzenan nahiago izaten dute herritarrek, planu gainean lan egiten baita landa-lurrei buruz ari direnean. —Eskailera ondoko lanpostua erabiltzen dute horretarako: ordenagailua eta inprimagailua bertan daude. Pribatutasun gutxi dago. —Zerga gai asko telefonoz artatzen ditu. —IVAP eta, batez ere, UEMA-ko ikastaroetan ulergarritasuna landu dute: esaldi motzak erabili, subjuntiborik ez... Gazteleratik itzuli beharrean, euskaraz sortu. —Dekretuekin zailagoa da, baina ari dira lanketa hori ere egiten. —Webgunea intuitiboagoa izatea oso beharrezkoa dela deritzo. —Astero bilerak egiten dituzte teknikariek: horrek barne-antolakuntzan hobetu du. Hiru sail: Antolakuntza (idazkaritza-kontuhartziletza-udaltzaingoa), Herritartasuna (kultura-euskara-berdintasuna) eta Hiritartasuna (hirigitza-ingurumena-turismo).

T7	Amaia Zinkunegi - Euskara teknikaria
Noiz	2025/04/15
Non	Udaletxean
Iraupena	30 minutu.
Landutako gaiak	—Irigarritasunaren alderdi sentzoriala eta kognitiboa oso interesgarriak iruditzen zaizkio, lanketa ezberdinetan txertatzeko moduak. —Bideragarritasun ekonomikoa arazo bat da: eskolaz kanpoko jardueretan begirale gehiago jartzea eskatzen du, baina beharrezkoa da. —Itzulpenerako sistemak: Telegram-ek ematen du aukera hori. —Inprimakiak, lehenengo euskarazkoa ematen da. Eskatuz gero, elebitan. —Adinekoei gaztelaraz eta gazteei euskaraz zuzentzeko ohitura dago, hitzaldi eta ekitaldi askotan: ohiturak aldatu beharra dago. Aldiro hausnartu.

Herritarren parte-hartze saioak

H1 Herritarren parte-hartze saioa - Deba

Helburuak —IUPIaren berri ematea.
—Egindako jarduketa-proposamenei buruzko ekarpenak jasotzea.
—Proposamenak jasotzea.

Jarduera mota Parte-hartze saio irekia.

Noiz 2025-06-18, 18:30etan.

Non Udaletxeko batzorde aretoan

Iraupena 60 minutu.

Partaideak (+rolak) —Herritarrek (1)
—Emakumea (1)
—Udal-ordezkarik politikoak:
—Alazne Txurruka, alkate anderea.
—Ainhora Urbietak, kultura saileko zinegotzia.
—Projekta Urbes
—Marina Gisasola.
—Miren Vives.

Erabilitakot dokumentuak Aurkezpena: <https://labur.eus/DEBA-IUPI-A1>

Elkarriketa Prozesu parte-hartzaile honetan parte hartu duen herritarra, une bertan, irigarritasunarekin lotura duen gizarte- eta hezkuntza-arloko ikastaro bat egiten ari da. Interes honek ekarri du parte-hartze prozesuan berri izan nahi izatera.
Proposatutako interbentzioei buruzko elkarriketa burutu da.
Ez da ekarpenik egin.

Deialdiko kartela



Deba denONA, denontzat



Irigarritasun Unibertsalerako
Plan Integrala 2026-2029
Plan Integral de Accesibilidad Universal

Informazio gehiago
Más información
www.deba.eus

Parte hartu!

¡Participa!

Deban
Ekainak 18, 18:30etan
Ispiluen Gelan
Itziarren
Ekainak 19, 17:30etan
Burugorrin



DEBAKO UDALA



Itziar
Auzo Udala

Laguntzailea
Subvenciona



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEIALDE PLANGINTZA
TERRENTZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANGINACION
TERRENTIAL, UIVENDA
Y TRANSPORTES

Saioko argazkiak -

H2 Herritarren parte-hartze saioa - Itziar

Helburuak —IUPIaren berri ematea.
—Egindako jarduketa-proposamenei buruzko ekarpenak jasotzea.
—Proposamenak jasotzea.

Jarduera mota Parte-hartze saio irekia.

Noiz 2025-06-19, 17:30etan.

Non Auzo Udaletxeko bilera gelan

Iraupena 100 minutu.

Partaideak (+rolak) —Herritarrak (6)
—Emakumeak (3)
—Gizonak (3)
—Projekta Urbes
—Miren Vives

Erabilitako dokumentuak Aurkezpena: labur.eus/ITZIAR-IUPI-A1

Elkarriketa Galtzada kalea

—Lehenetsi beharreko jarduketa da: espaloiak jarri zirenean, adokin-zoladuraren berezko koskei espaloia-arenak gehitu zitzaizkion, egoera okertuz. Gainera, espaloia-aren zabalera ez da jarraia, gune batzutan asko estutzen delarik.

—Espaloietako zoladura oso irristakorra da.

—Eskubandak jartzea ezinbestekoa da.

Alondegi eta Prozesio kaleak

—Ez dira behar beste garbitzen eta lirdinga sortzen da (verdin). Bide luzea da eta alternatibak eskailerak dira.

—Eskaileren baldintzak hobetu.

Osasun zentroa

—Gehiegizko malda duen kalean kokatzen da. Horrek asko zailtzen du bere erabilera. Posible al litzateke oinezko kaletik sartzea?

—Aparkaleku erreserbatua ere maldan dago.

Autobus geraldakua eta parkinaren arteko ibilbidea

—Edukiontziek oinezko ibilbidea eta ikusgaitasuna oztopatzen dute: ispilu bat jartzea proposatu da, ez bada edukiontzientzat beste kokapen hobea bilatzen.

—Ibilgailuen abiadura gehiegizkoa da, batipat industrialdeko jarduerak eraginda eta ordu zehatzetan (8:00, 14:00...).

Muxiarteko bidegurutzia

—Sestra-aldaketa dela eta, ikusgaitasuna ez da ona.

—Ibilgailuen lehentasuna adierazten duen ingurunea da: oinezkoentzat ez da horren segurua.

Zabalsoro pilotalekua

- Barandaren ordezkariak jarri zen, aire-korrontea oztopatzeko. Orain pilotalekua itxi denez, ez da beharrezkoa eta ikusgaitasuna oztopatzen du: kentzea proposatu dute.

Udal-irigarria

- Udal-informazioak elebitan izan beharko luke: aukeratzeko aukera eman.
- Whatsapp-aren erabilera aldatu egin da: arautu egin beharko litzateke eraginkorra izan dadin.
- Webgunea: Debako webgunean ez dago Itziarri buruzko informazio askorik eta Itziarriko webgunea ez da oraindik martxan jarri.
- Harrera-bulegoko telefono zenbakia jakitea ere zaila da.
- Kopraixetan (festetan) jartzen diren harmailek ez dute desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako eremu irigarririk ahalbidetzen. Hala ere, zenbait aukera leku proposatu dira. Udaletxe zaharreko balkoia ez da irigarria izango, eskailerak baitaude orain. Beraz, ez luke festetarako balioko.
- Gautenak piktogramak proposatu izan ditu: piktogramen erabileran hasteko balioko luke.

Bestelakoak:

- Burugorri tabernako atea oso astuna da.
- Oro har, eserlekuak falta dira kaleetan.
- Farolen oso argi gutxi egiten dute eta zenbait lekutan falta dira.
- Plazan komun irigarria egongo da, eskolakoa kanpotik ere erabilgarri egongo baita.

Proposamenak:

- Herribusa edo auzobus zerbitzua martxan jartzeko pausoak ematea proposatu da, beste herri batzutan egin den bezala. Gaur egun Lurredebus-ek ematen duen zerbitzuaren osagarri izango litzateke, ez soilik adinekoei begira, baita gazteei ere.

Saioko argazkiak

